

berriak

Triforio

-tik



araba
álava

Aterpetxea irekita dago berriro

Maiatzaren amaieratik, Katedralako Aterpetxea erabilgarri dago Gasteiz parean Donejakue Bidean geldialdia egin nahi duten turistak, bidaiariak eta erromesak hartzeko, bere edukieraren erdian dagoen arren. Pandemia kontrolatzeko egungo araudiarekin bat etorritik, ohe erabilgarrien kopurua % 50 murriztu da (90etik 40 plaza eskaintzen dira), eta sei laguntzako logelak elkarrekin bizi diren pertsonak bakarrik partekatatu ahal izango dituzte.

Edukiera murrizteak gune komunei eta jantokiei ere eragiten die, beretan erabilera bereziko ordutegiak ezarri baitira, pilaketak saihesteko. Espazio guztietan nahitaezkoa da maskara erabiltzea, baita gelan ere –bizikidetzat-unitateekin partekatzen ez bada–.

Bestalde, sukaldea eta garbitegia itxita egongo dira, erabili ondoren ezin baita desinfekzioa bermatu, vending makinekin gertatzen den bezala. Gainera, bezero bakoitzak oheko arropa banakako paketeen jasoko du. Era berean, aireztapena indartuko da, ostatu hartzen duten pertsonen segurtasuna bermatzeko.

Aterpetxea itxita egon da turismoarentzat joan den irailetik. Orain, Donejakue Bideko erromesentzako Arabako lurretan berriro zabal-



du den lehen aterpetxea bihurtu da, 2021. urtean eta 2022an Xacobeo urtea ospatzeko.



Turismoaren sustapena. Arabako Foru Aldundiak Santa Maria Katedrala aukeratu du Estatuko hainbat tokitan lurraldeko turismo-ekaintza aurkezteko, "Zatoz bidaiatzera" kanpainaren barruan. Lehenengo bi bilerak Sevillan eta Malagan egin ziren, eta ondoren Bilbora, Madrilera, Valentziara, Bartzelonara, Zaragozara, Valladolidera eta Logroñora joan ziren. Topaketa horietan, turismorako erakargarriak diren Arabako elementuak aurkeztu zituzten zirkuitu operadoreei eta bidaiari-agentziei, eta Jon Lasa Santa Maria Katedrala Fundazioako gerentek hartu du parte.

Itun Berdeari atxikitzea

Santa Maria Katedrala Fundazioak bat egin du era ofizialean Gasteizko Udalak sustatutako "Itun Berdea" komunitatearekin, ingurumena errespetatzen duen eta klima-aldaketaren aurkako borrokarekin konprometitutako enpresa-jarduerak sustatzeko.




Illo horretan, katedralak bat egiten du "Itun Berdearen" ikuspegi integralarekin; izan ere, Gasteiz hiri berdearen balioekin bateragarriak diren jarduerak ekonomikoetarako aukera-lurralde gisa jartzen du, eta bere gain hartzen du ekoizpen-eredu jasangarriagoa lortzeko bidean eragile aktibo gisa duen erantzukizuna.

Luis Aramburu Eskolaren kontzertua

Katedralaren elizpeak berriz ere hartu zituen Luis Aramburu Musika Eskolako ikasleen entzunaldiak. Emanaldiak maiatzaren 27an izan ziren eta pianoa, akordeoia, saxofoia eta klarinetak erabili zituzten.




Santa Anako Portadaren zaharberritzea, urratsez urrats



Berriak Triforiotik aldizkariaren ale honetan, XIV. mendean Santa Anako portada eraikitzekeko prozesuari eskainitako ilustrazioekin jarraituko dugu. Oraingo honetan, XIX. mendean ez-kutatzeran eraman zuten kontserbazio- eta mantentze-arazoei erreparatuko diegu.


IV. Kapituluak Kontserbazio-arazoak

Eraikia izan zenetik, Santa Anako portadak ia zazpi mendetako gertaerak gainditu ditu, eta, batzuetan, horiek kaltegarriak izan dira bere kontserbaziorako. Horietatik nagusia XIX. mendean gertatu zen, gurutzaduraren eskuineko besoak erortzeko arriskua zela eta, horma-bular handi bat eraikitzea gomendagarri ikusi zen, eta, azkenean, horrek estali egin zuen; 1962. urtera arte ez zen berriro aurkitu. Ia hirurogei urte igaro dira, eta, horregatik, orain zaharberritze integral berri bati ekitea erabaki da, itxura hobetzeko eta iraupena bermatzeko.



Lehenengo zereginetako bat, portada eguraldi txarretik babesteko ez ezik, tenpluaren parte horren egitura indartzeko ere balio duen harritzko ganga sendo bat eraikitzea izan zen.

Aurretiazko beste zeregin bat portada osoaren fotogrametria bidezko erregistroa egitea izan zen. Horri esker, zaharberritze prozesuan azterketa desberdinetarako oinarri geometriko gisa erabiliko litzatekeen 3D eredu zehatz bat egin ahal izango zen.



Zaharberritze-lanaren zati nagusia eskultura-multzoaren garbiketa eta finkapen zaindua da, oso lan delikatuak, teknika eta material egokiak ondo ezagutzen dituzten espezialistek bakarrik egin dezaketena.

Ilustrazioa eta testuak: **Ismael García-Gómez (GPAC, Enklabe KST)** | Oinarritzko orto-argazkia: **Miren Fernández de Gorostiza (Enklabe KST)** | Zaharberritzea: **Petra Koop. elk.**

Jarrai gaitzakezu